

FORU DEKRETUA, ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIAREN AURKA BORROKATZEKO NAFARROAKO KONTSEILUAREN OSAKETA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUENA	
Izapidea	ARAU IDATZI AURREKO KONTSULTA
Ertaina	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA
Araua	11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak).

Aurrekoa betetzeko, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hogeit eguneko epean iritziak helaraz ditzakete galde-sorta honetan planteatutako alderdiei buruz.

1. KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legea onetsi ondoren, orain arautu nahi dira bertan ezarritako Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta funtzionamendua.

2. ARAUA ONESTEA BEHARREZKOIA ETA EGOKIA DEN.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 13.4 artikulua ezartzen duenez, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira, foru dekretu bidez, eta kontseilu horretako kide izanen dira, betiere, honako hauen ordezkariak: a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa; b) Nafarroako toki entitateak; c) Nafarroako Arartekoa; d) Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ari diren elkarteak; e) Nafarroan pertsona arrazializatuen edo gutxiengo etnikoetakoen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena duten elkarteak.

Foru lege beraren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, foru legea onesten denetik gehienez ere urtebeteko epean, organo eskudunak xedatuko du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua sor dadin.

Beraz, bidezkoa da erregelamendu bat egitea, legea garatu ahal izateko eta Nafarroako Parlamentuak horretarako ezarritako agindua betetzeko.

3. ARAUAREN HELBURUAK.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legeak ezartzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua sortzea, Foru Administrazio Publikoan etnia- edo arraza-jatorriak eragindako diskriminazioaren arloan kontsulta eta parte-hartzerako organo gorena izan dadin, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokaren arloko eskumena duen departamentuari atxikita (gaur egun, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari).

Foru dekretu honen helburua da Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta funtzionamendua arautzea, 13/2023 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. AUKERAN DAUDEN BESTE KONPONBIDE BATZUK.

13/2023 Foru Legean ezarritakoaren arabera, foru dekretu bat onetsi behar da, eta, beraz, horixe da aukera arauemaile bakarra.

Migrazio Politiketako zuzendari nagusia, Patricia Ruiz de Irizar. Sinadura jatorrizkoan dago.